



MUSIKA

Berritu edo hil

Euskadiko Orkestra, besteak beste, Gemma New zuzendariarekin arituko da datorren denboraldian.



NASA / JOEL KOMSKI

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ez da erraza egungo pandemia-egoeran –badirudi ez gaituela utziko datozen hilabeteetan– bizitza kulturak bizirik jarrai dezan modua aurkitzea. Baina baditugu kultur erakunde batzuk ahalegin handia egin dutenak leku hori egiteko, bezeroak asetzeko eta berrikuntza zinez erakargarriak eskaintzeko.

Erakunde horietako bat Euskadiko Orkestra da. Irailaren 25ean hasiko da abonuen denboraldia Gasteizen. Osasun-eskakizunak betetzeko antolaketa-neurriak proposatu ditu, eta era berean, betiko kalitatea eskaini.

Lehen abonuen programan Schuberten bederatzin sinfoniak eskainiko dituzte, Hegoaldeko lau hirietan modu berezian banatuta. Alde batetik, saio bikoitzak eskainiko dira, 18:00etan eta 20:00etan, saio bakoitzera abonatuak publikoaren erdia joan dadin. Honez gain, saio bako-

itzean sinfonia desberdinak eskainiko dira. Eta, gainera, programa ezberdinak izango dira hiri bakoitzean. Sinfonien koktel-ontzia beraz, planteamendu guztiz desberdina eta benetan erakargarria. Halere, ez dakit ziur formula horrek aforoa mugatzeko balioko duen edo guztiz kontrakoa. Saio guztietara eta hiri guztietara joatea izango da tentazioa, Schubert integral honetaz gozatzeko. Nolanahi ere, Euskadiko Orkestrak abonatuak jakinaraziko die zein egun eta ordutan joan daitezkeen, eta beraz, ezin izango da “tranparik” egin.

Bigarren programa, Wagnerri eskainitakoa, desberdina izango da hiri bakoitzaren arabera, eta formula nagusia egingo den programa kontzertu-egun bat gehiago zabaltzea izango da.

Antolaketa kontu horiez gain, argi dago Euskadiko Orkestrak erromantizismo musikalean jarri duela begirada denbo-

raldi honetan. Schubert eta Wagnerrez gain, Schumannek ere protagonismo berezia izango du.

Gauza asko daude azpimarratzeko 2020-2021 denboraldian, baina gutxi batzuetan jarriko dut arreta. Garai erromantikoaren protagonismoaz gain, eta elementu interesgarri askoren artean, ezin dugu galdu *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiektua, joan den denboraldian hasi zena eta aurreko titulua berriak eskainiko dituen.

Bestalde, aipatu behar dut hiru emakume zuzendariren presentzia: Ruth Reinhardt, Gemma New eta Anja Bihlmaier. Eskertzen da Euskadiko Orkestrak emakumea zuzendaritzan ikusarazteko egin duen ahalegina, gehienetan gizonek betetzen baitute zeregin hori.

Espero dezagun denboraldi arrakastatsua izatea. ●